

## **FUNTSEZKO ELKARTEAK:**

Gure proiektuak funtziona dezan zenbait bazkide eta hornitzaile behar ditugu.

Bazkideei dagokionez, emakumeen elkarteak, Foru Aldundia eta Udaletxea izango dira nagusienak. Izan ere, Foru Aldundiak ordainduko dio emakumeari zerbitzua eta Foru Aldundiaren bidez lortuko ditugu guk irabaziak; emakumeen elkarteekin dugun harremanaren bidez informazioa helaraziko diegu Gipuzkoako emakumeei; eta Gipuzkoako udalerrri bakoitzeko udaletxea arduratuko da emakume bakoitzak bere buzoiean gure zerbitzuaren inguruko publizitatea jaso dezan.

Hornitzaileak aldiz, chip-a hornituko dutenak eta gailua muntatuko dutenak dira. Hauek ere garrantzi handikoak izango dira, hauek direlako gure sistemaren teknologia aurreratua bideratuko dutenak.